

A close-up portrait of Jon Arizkun, a man with a beard and short hair, smiling warmly. He is wearing a light blue collared shirt. The background is softly blurred, showing vertical lines of light and shadow.

# Amerika

• PERTSONAIA •

## «Panamako gerrara ez joateagatik nago Kuban»

Habanako txinatar auzoa du lantoki. Handik hona oinez da goizetik arrats, kirol oinetako higatuetan sarturik. Azal beltzaran, hortz zuri. Soinean, nikia, galtza belaunetik beherainoko motzak: poltsiko ondraduetan kargamendua garraio; tabakoa, gehienbat, baina bezeroak zer nahi huraxe ateratzen ahal da gure lagunaren sakelatik, zernahi saltzeko prest da *Amerika*. Izengoitia ere, ez du alferrik jasoa...

2007ko abenduaren 16a

ARGIA  
12

JON ARIZKUN  
Argazkiak: Zaldi Ero

## Nortasun agiria

*Amerika* Jorge da izenez, edo George. Hori ere bai. 50 urte inguru dituela dio, zuzen ez dakien arren. Familia du, andrea eta bi ume, nonbait, astea estatua-  
ren esku, beren seme-alabak zaintzeko gauza ez omen direnen gurasoen  
umeentzako egoitzan. *Amerikak* berak salmentan ematen du eguna, Habana-  
ko txinatar auzoan gora eta behera, estraperloko tabakoa poltsikoetan. Era  
berean, kalitate oneneko puruak aterako dizkizu Partagas tabako fabrika  
nazionaletik, atzeko atletik betiere, eta merkeago. Mertzenario entrenamen-  
dua egin izanak bizkartzain 'agiria' ere eman dio, eta bat baino gehiago zain-  
duta dago. Horretan kopla gutxi da gure *Amerikarekin*. Gainerakoan, erabate-  
ko endredamakila, borondate onekoa, baina endredamakila aparta.

geratu zen. Milaka sartu ziren, milaka. Ni hurrean bizi nintzen, eta notizia ailegatu zen: "Peruko enbaxada txikituta dago!". Eta ez dakit zer izan zen, haraxe joan ginen munduko muti-  
ko denak, ailegatu eta sartu egin ginen. Hantxe egon ginen egun batzuetan. Gatazka 80ko apiri-  
lean hasi zen, ez dakit ze egunetan, eta hantxe egon ginen ez dakit noiz arte, enbaxadara sartu  
ginen denak Perura irten ginen arte, abioian. Pasaportea eman ziguten, bisatua eta ahal dakit  
zer gehiago!, eta Perura joan ginen hegan.

### Han hasi zen zure historia.

Bai, han hasi zen nire historia. Perura joan baino lehen baimena eman zidaten bainatzera joateko. Gero, joaterakoan arazoak izan nituen, ze adin txikikoa nintzen, eta heldu baten sinadura behar genuen Perura joateko. Enbaxada barruan andre bat zegoen, Kolon auzoan nire andregai izandako baten ahizpa, Julitarena –uste dut andre hark Pita zuela izena–, eta haren amak sinatu zuen.

### Eta Perura.

Eta Perura joan nintzen. Enbaxadara sartzen zenak asilo politikoa zeukan, eta ni libre joan nintzen Perura, nire agiri eta guzti. Bizi berri bat, ezta? Hamabost edo hamasei urte neuzkan...

### Hamabost, hamasei urte besterik ez, eta Perun!

Neuk ere ez dakit nola egin nuen, baina hantxe sartu nintzen, saltsan! Mutikoek izaten dituzten burutazioak, badakizu. Toldopean jarri gintuzten, kanpamentuetan bezala, ohatzeetan. Parke nazionala edo antzekoa zen lekua, han, Liman... Baina begira horri...

### Grabagailuari? Ez duzu kontatu nahi?

Bai, kontatu nahi dizut, baina ez dakit ba norentzat ari zaren, gobernuarentzat edo...

### Esan dizut, Euskal Herrian argitaratzeko da.

Tira, nik ez nekien lan hau, zurea, partikularra zen ala gobernuarentzat edo...

### 1980an hasten da zure historia, Habanan, Peruko enbaxadan sartu zinenean... Ez dakit aurrekorik.

Santiagon jaiotako mutila naiz, Kubako Santiagon. Bost edo sei urte nituela Habanara ekarri ninduen familiak. Amak, aitaordearekin. Los Sitios auzora etorri ginen [aharrausi egin du, nasai]. Ikasten hasi nintzen, Lehen Hezkuntzan, saiatzen eta ahal dakit ba nik zertan, 80a ailegatu zen arte. Marianaon ginen ordurako, izebarenean, etxe handi batean, Buenavistan, Miramarretik hurre, enbaxadak dauden lekuan. Orduan, auzo osoak jakin zuen enbaxada txikituta zegoela. Familia oso batek *guagua giron* bat hartu eta Peruko enbaxadako paretan nagusiaren kontra danba! jo zuen, atarian zegoen zaintzailea akabatuta. Enbaxada irekita geratu zen, egundoko zulokotea egin zuen. Handik sartu zena barruan



## Hiru anaia erbestean

“Beste irteera bat ere bazegoen, itsasotik, Estatu Batuetara zihoana, eta nire bi anaia hara joan ziren, yatean. Orduan libre zen joatea, ze nire anaia haietako bat, 80an Boniatoko presondegian zigorra betetzen ari zena –hamar urteko kartzela, diru publikoa bidegabe erabiltzeagatik; *bodegeroa* zen eta ez dakit zenbat diru gastatu zuen alferrik–, zuloan zegoen eta esan zioten: ‘Irten egin behar duk hemendik! Joan!’. Eta horixe egin zuen, esan zioten lekura joan. Estatu Batuetan dago orain, Texasen bizi da. Bestea New Yorken dago, maisu. Yatean joan zen hura. Ni beste inor ez zen enbaxadan sartu, Perura. Gu senide mordoia gara: hiru mutil... Ez, lau! Beste bat, Manolo uste dut... edo Armando –ez dakit–, hemen geratu zen, ez zuen alde egin nahi izan. Txofer zen *pipa* batean, kamioi batean, eta ez zuen nahi izan. Guk hirurok bai”.

### Gobernuarentzat? Ez, motel!

Ondo da... Han, aterpe hartan, banda batekin batu nintzen, kaleko jendearekin, eta droga trafikatzaileru sartu nintzen, baina kokorria gero, Peruko mendietakoa, Amazonako oihanetik Kolonbiara, kokaina egiten duten fabrikara, Kolonbiako oihanean dauden fabrika barruraino eraman behar zen. *Biajea* hor ihartu nuen, nik eta beste jende batzuek, eta hara joan ginen. Kontua zaldiz joatea zen, mando karabana lotuta, oihanean barrena, gidari batekin. Beste batzuek fusilekin bizkarzaintzen gintuzten, han oihanean jende gaizto asko baitago: zaldi eta mando karabana horiei eraso egiten diete, diruagatik. Hortaz, gu, fabrikara ailegatu, karga hustu, beste bat hartu eta beste herrialde batzuetara bidaltzen gintuzten, oihanean barrena beti: Boliiviara... Beste herri hori, zein da? Venezuelal, Argentinan... Ulertzen? Toldope haietatik irten eta karabana horietan ibiltzen nintzen ni, egunetan eta egunetan, billete egiten –dolar amerikanoa–, eta dirua gordetzen.

### Galanta, horratik!

Zer ba! Gaztea nintzen, bai, baina adorea besterik ez duzu behar guk egiten genuena egiteko. Gerrillari aurre egin behar genion oihanean, baina, zorionez, behin ere ez zitzaidan borrokarik tokatu. *Biaje* gutxi egin nituen, hala ere: bost bat, hamabi mila dolar batu eta Estatu Batuetara joan nintzen, herrialdez herrialde.

### Herrialdez herrialde?

Dirua egin nuenean, mugaz muga joan nintzen, botila hartzen [autostop egiten] autopistan. Perutik... Nola du izena?... Panamara, baina tarteko herrietako mugak pasatuz, ezku-

tuan. Muga batzuetan miaketak egiten zituzten, normala denez. Perun, asilo politikoa nuen ez, ez neukan problemarik. Problema Mexikora sartzerakoan sortu ziren, Guatemalan. Han bai, pasatzeko lekuak non dauden dakien jendearekin jarri behar zara harremanetan. Ni Oaxacatik pasatu nintzen.

### Estatu Batuetara sartzeko ez ezik, Mexikora sartzeko ere lanak.

Bai, Mexikoko agintariak ez dute nahi Erdialdeko Amerikako hainbeste ilegal sartzea. Eta horregatik, nondik pasatu dakien jendearekin jarri behar zara harremanetan, baita dirua pagatu ere –dolarretan–, koioteei. Bidea aurkitzen dute eta pasatzen zaituzte, feriarengatik, diruarengatik.

### Hor ere badira komeriak. Engainu eta amarruak.

Bai, baina gizonezkoak bakarrik direnean gutxitan gertatzen dira txarkeriak. Gizonezkoak eta emakumezkoak daudenean, emakume politik eta, maitasuna egiteko modukoak, larrua jotzeko eta, orduan bai, bortxaketaren bat edo beste izaten da. Baina gizonezkoak bakarrik direnean, gutxitan dira bortxaketak eta horrelakoak. Ni, Mexikora sartu nintzenean, koiote egin nintzen, pasabideak non zeuden jakiteko. Tijuana mugara ailegatu nintzen, Kaliforniatik bertara, txintxal [denda txiki] horietako batean merke alokatu eta bertan egon nintzen. Poliki, lineara [mugara] arrimatu nintzen, koioteen lagun egin nintzen eta ahal dakit nik zer!, eta haien plana ikusi nuen, jendea pasatzekoa. Bi ziren. Nik uste ekintza hori egin nuenean hamazazpi urte izango nituela.

Koiote egin zinen...

## Bigarren aukera

“Panamara ezetz, ez nintzela joango esan nuenean, beste aukera bat eman zidaten. Izan ere, Panama hogeita lau ordu baino gutxiagoan hartu zuten. Klean libre utzi ninduten. Lanean ari nintzen sasoi hartan eta lanera joan nintzen. Baina 91n, Irakeko gatazka etorri zen, Irakeko gerra. Eta mertzenarioei hots egin ziguten. Haiek nire apartamentura telegramak bidali eta bidali, eta ni desagertuta, telegramak atzera beren helbidera bidaltzen. Lanera sartu zitzaizkidan arte. Los Angelesen ari nintzen, eraikuntzan, banketxe bat konpontzen. 60 solairuko bankua zen, eta bost erre egin zitzaizkion. Han ari nintzela etorri eta harrapatu ninduten mertzenarioen fundaziokoek, Irakera joateko. Nik ezetz, eta deportatu egingo nindutela, aberriari traizio egiteagatik. Nik deportatzeko ba, aberriari traizio egiteagatik. Eta halaxe ailegatu nintzen Kubara, zenbait prozesu judizial eta epaiketa eta gero”.

Esan egin nien, koiote izan nahi nuela, jendea pasatzeko, dirua behar nuela. Denbora hartu zuten ni onartu baino lehen. Bi ziren, besterik ez, eta hamar lagun pasatzen zituzten aldi bakoitzean... Eta jendea pasatzen hasi nintzen, feriarengatik.

### Eta droga trafikoa batutako hamabi mila dolarrak?

Dena ez nuen gastatu. Baina herrialde asko pasatu behar izan nituen, alderrai ibili nintzen denbora askoan, hoteletan aterpe hartu gabe. Janari eta garraioan besterik ez nuen gastatzen. Garraioan bertan lo egiten nuen askotan: trenean, kamioian... Tijuana ez, Tijuana toki bat alokatu nuen, ze handik hara kontrol handiak zeuden. Eta ez uste. Ba al dakizu zergatik hasi nintzen ilegalak sartzen? Legal sartzen saiatu nintzen, eta atzera botatzen ninduten. Dirua neukan, baina ez nuen pagatu nahi, diru guztia kenduko zidaten eta. Orduan, esan nuen: “Ez, burua erabiliko diat: lagunak egingo ditiat eta ilegalak pasatuko ditiat”. Horrela hasi nintzen koiote.



### Eta Estatu Batuetara sartu zinen...

Milaka aldiz! Ordurako, ez nuen Estatu Batuetan egon nahi. Tijuana bizi nintzen, alokatuta. Hango giroa ezagutu nuen, eta dirua egiten nuen. Hiru ginen, hiru koiote, hamar lagunentzat. San Diegora eramateagatik 200 dolar pagatzen zuten. Los Angelesera, 350. San Frantziskora, iparraldean, 500 dolar. Distantzia handiak ziren, baina nire lagunek, mexikar haiek, kamioneta kontaktuar eginda zeuzkaten. Muga pasatu eta gero, lur amerikanoan geundenean, jendea kamionetan sartu eta aire! Gainera, bi mexikar haiek ondo ezagutzen zituzten kontrol puntuak, poliziak non egiten zituen miaketak, non eskatzen zituzten paperak... Eta guk beste bide batzuk hartzen genituen... Ez gintuzten harrapatu. Behin edo behin bai, izan genuen problemaren bat, mendi muinoan, nahiko borroka... Harrapatzen gintuzten, edo bezeroak galtzen genituen... Helikopteroa zen okerrera: bi izaten ziren, bi eulitzar –halaxe esaten genien–, bata gora eta



ILLARRA  
Jatetxea

Illara bidea 97 • 20009 Donostia

Tel.: 943 21 48 94

www.restauranteillarra.com • info@restauranteillarra.com



bestea behera etortzen ziren, eta zaila izaten zen eskapatzea.

#### Bezeroak galtzen zenituzten inoiz...

Bai. Mugazainek ikusten gintuztenean, itzuli beste erremediorik ez genuen izaten. Orduan, hurrengo egunean beste kargamentu bat erostera joaten ginen kantinarara; beste hamar lagun, hamar oilasko –hala esaten zaie, *oilasko*–, bakoitzagatik 5.000 peso mexikar pagatzen genuen, garai hartan. *Oilaskoak* beren herritik etortzen ziren kantinarara, han egoten ziren egun batzuetan, zain, *polleroaren* zain. *Polleroa* etortzen zenean, kantinan hamar *oilaskoren* dirua utzi, eta hartu egiten zituen. *Polleroak* –guk, koioteok–, haiek hartu eta helbidera eramaten genituen. Bakoitzaren telefono eta helbidea izaten genuen, Estatu Batuetan joan behar ziren tokira ailegatu eta senideei kobratzen genien, izan San Diegon, San Frantziskon edo Los Angelesen. Telefono zelularrak genituen, garai hartako zelular handiak –akordatzeko?–, haien etxetara hots egiteko: “Hi, zuen senide honek muga pasatu dik. Hainbeste balio dik”. Horrela.

#### Zama galtzen zenutenean...

Atzera jiratu eta gehiagoren bila joan behar ginen. Galdutako zama mugazainek harrapatzen bazuten, atzera bidaltzen zuten. Baina kantinaren kontaktua zeukatenez, hara joaten ziren, berriz saiatzeko. Aiztoak, labanak eta horrelakoak generamatzan guk, hiru koioteok, ze muinoan jende gaizto asko dago, *oilaskoak* kendu nahi dizkizuna, eraso egin... Horregatik eramaten genituen arma zuriak, ez inori erasotzeko, baina badaezpada. Mexikar haiek, *oilaskoen* artean neska politen bat ikusten bazuten, xaxatzen saiatzen ziren,

## Gerrara ez

**“Diruarengatik sartu nintzen mertzenarioetan. Interesarengatik. Estatu Batuetan dauden kubatar mertzenario gehienak horregatik daude han, diruarengatik, eta Kubara etortzeagatik, hemengo gobernua kontra borrokatzeko. Nire kasuan, familiak esaten zidan: ‘Egon hadi hor, mertzenarioetan, baina ez hadi behin ere gerrara joan!’.** Eta horixe esaten nion nik ere: **‘Amatxo, trankil, ez izan kezkarik, gerrara joateko garaia iristen denean, atzera egingo dut, ez naiz joango. Kartzelara joan behar baldin badut, kartzelara joango naiz, zer egingo diogu ba!’”.**

## AZKEN HITZA ‘El Corralón’

“Deportatu baino lehen sei hilabete eduki ninduten kartzelan, Kalifornia erdian, Mexical edo ez dakit nola duen izena lekuak, *El Corralón* esaten dioten kartzelan. Han mundu osoko emigranteak dituzte: errusiarak, frantziarrak, afrikarrak... Denak deportatu zain”.

onean: alkohol pixka bat ematen –ron, zerbeza, whisky...–, harekin maitasuna egiteko. Onean ez bazen, txarrean egiten zuten.

#### *Oilaskoak* eramateari utzi zenion gero.

Bai, gauza okertzen hasi zen. Amerikako polizia *polleroak* harrapatu eta bost urteko zigorra jartzen hasi zen, espetxe federalean. 80an, 81ean, ni hasi nintzenean, polizia ez zuen ezer egiten ilegalak pasatzeagatik, baina gero, drogaren kontrako gerra egiten hasi zirenean, 87an edo, txartzen hasi zen. Ni 85ean irten nintzen lan hartatik. Estatu Batuetara sartu nintzen eta asilo politikoa eskatzera joan nintzen zuzenean, migrazio eta naturalizazio bulegora. Eta indioentzako programa batera bidali ninduten, Arizonara.

#### Indioen erreserbara.

Bai. Lehenengo hotel batean jarri ninduten, baina familiarik ez seniderik ez neukanez han, erreserbara! Hogeita bost urtez beherakoen tzako programa zen, mutikote problematikoztat, lapurretarik ez egiteko, inor ez hiltzeko, hezkuntza ona emateko. Eta ni kubatarra nintzenez, gobernuak hara bidali ninduen, Arizonara, hemezortzi hilabeteko. Hainbeste programa pasatu nituen han, eta gero, denbora hori pasatu eta irten nintzenean, zain neukan jendea, Miamiako mertzenarioen fundazioa.

#### Zer zuten haiek zurekin?

Kuban soldadutza pasatu gabeko mutilak hartzen zituzten. Ondo pagatuko zigutela, 2.000 dolar hilean, nazioarteko mertzenarioetan izena emateagatik. Nik “2.000 dolar” entzun nuenean, berehala eman nuen izena: mertzenario joan nintzen. Formularioa bete eta bi urteko entrenamendua egin nuen. Gero, gerrarik ez zenez, ondo, kalean. Ondoren, Panamako gerrara hots egin zitaten. Nik, ezetz, ez nintzela joango. Orduan, harrapatu eta handik kanporatzeko epaiketa egiten hasi ziren, Kubara bidali ninduten arte. Horrelaxe nago berriz hemen, Kuban, gerrara ez joateagatik... ■